



Sagardoaren
lurraldea
*El territorio
de la sidra*

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus
www.sagardoarenlurraldea.eus

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:

2019ko txotx boladaren irekiera. XXVI. Sagardo Berriaren Eguna 2019.

Data: 2019ko urtarrilak 16.

Ordua: 12:00.

Tokia:

Prentsaurrekoa:

Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa
Kale Nagusia, 48
20115 Astigarraga

Txotx irekiera:

Gartziategi Sagardotegia
Martutene Pasealekua, 139
20115 Astigarraga

Deskribapena:

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 16an XXVI. Sagardo Berriaren Eguna 2019 ospatuko da 2019ko txotx denboraldiari hasiera emateko. Aurtengo gonbidatua **OLATZ ARRIETA kazetaria** izango da.

Egitaraua:

11:30-12:00: Akreditazioen banaketa **Sagardoetxean**.

12:00: Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2018ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

12:45: Olatz Arrietak **sagarrondo** bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30: Txalapartarien deiarekin batera sagar dantza dantzatuko da, eta ondoren, sagardogileek Olatz Arrieta soka dantzan parte hartzera gonbidatuko dute lehen kupela irekitzeko.

13:45: Gartziategi sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda **lehen kupela irekiko** du Olatz Arrietak eta honekin batera 2019ko txotx denboraldiari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

Asistentzia baieztatzea beharrezkoa da akreditazioak pertsonalizatu ahal izateko. Akreditazioak Sagardoetxea Museoa banatuko dira 11:30etatik 12:30etara bitartean eta Gartziategi sagardotegian 13:00etatik 13:30etara bitartean.

XXVI. Sagardo Berriaren Eguneko protagonistei **elkarriketak** egiteko bi gune ezarriko dira: bata, Sagardoetxean sagarrondoa landatu ostean, eta bestea, Gartziategi sagardotegian txotx irekieraren ostean. Elkarriketen kudeaketa hobetzeko asmoz, elkarriketak egiteko tarteak baieztatzea eskatzen da.

13:30etan emango zaio hasiera Gartziategi sagardotegian egingo den irekierari **txotx irekierako protokoloarekin**. Sagardoaren Lurraldeako antolakuntza taldea bertan izango da argibide gehiago emateko.

—

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)

Tel: 943 550 575 / E-maila: info@sagardoarenlurraldea.eus



Sagardoaren
lurraldea
*El territorio
de la sidra*

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus
www.sagardoarenlurraldea.eus

Txotx Berri Herrikoia 2019

Aurten ere herritarrentzako jarduerak antolatu dira **Txotx Berri Herrikoia 2019** ekitaldian.

Egitaraua:

Murgia Jauregian:

12:00-14:00: XXVI. Sagardo Berriaren Egunaren zuzeneko **emanaldia**, herritarrentzako **pintxo** eta **sagardo dastaketa** eta "Emakume ekintzaileak sagardogintzan" **erakusketa** (12:30etan bisita gidatua izango da Lourdes Odriozola historialariarekin).

17:00-18:00: Haurrentzako **Txan Magoa**-ren emanaldia.

18:00-19:00: **Txokolatada** eta XXVI. Sagardo Berriaren Eguna 2019-ren **bideoaren** emanaldia.

18:30: Trikitilarien irteera Astigarragako tabernetara.

Herrian:

18:30-20:30: **Pintxo pote herrikoia trikitilariekin**. Astigarragako 16 tabernetan pintxo bereziak eta sagardoa txotx-etik eskainiko da. Bitartean, Norberto Almandoz Musika Eskolako trikitilariak kaleak alaituko dituzte.

21:00: Afari herrikoia **Petritegi sagardotegian** (izen-emateak tabernetan, Sagardoetxean, e-mailez info@sagardoarenlurraldea.eus helbidera idatzita edo telefonoz 94355057. Prezioa: 20€).